

# Jakin dezaten

Gerra Zibilaren inguruko  
testigantzak ezagutuz

*Maite Ruiz de Azua - Orereta Ikastola*

Historia bat kontatuko dizuet: HISTORIA idazteko ahots-bilketari buruzko historia bat.

Denok badakigu Historia idazteko artxiboetan arakatu eta dokumentuak arretaz aztertu behar dela, baina, honekin batera, Historia bizia ezin dugu inola ere ahaztu, horregatik Historian parte hartu dutenen testigantza jasotzea ezinbesteko lana da; modu honetan, Miguel de Unamunok "intrahistoria" izendatu zituen sustraietara hurbildu beharko ginateke, hau da, Historia bizi eta egin zutenengana gerturatu, beraiek baitira Historiak askotan ahaztu dituenak.

Honen harira, Orereta Ikastolan historia hau 2013-14 ikasturtean hasi zen. Garai hartan, Lengua y Literatura ikasgaiari, erreportajea eta elkarrizketa lantzen ari ginela, ikasleen proiekturako gaia aitona-amonari elkarrizketa bat egitea interesgarria izan zitekeela iruditu zitzaigun irakasleoi. Nire kasuan, agian, interes berezia banuen, ama nuelako gerrako kontakizunak etxekoei behin eta berriro jakinarazi nahian. Horrela, guretzako liburuetan

ikasitako guztia, amarentzako bere bizipenak ziren, eta hauek entzuteak Historia ulertzeko ikuspegia aldatzen zuela ulertu genuen, edo aldatzen ez bazuen ere, beste begirada batez begiratzen erakutsi zigun, behintzat.

Helburu hau buruan genuela, "Aiton-amonari haurtzaroari buruzko elkarrizketa bat egin behar diezue", izan zen irakaslearen proposamena, "eta, galderen artean, ez ahaztu Gerra Zibila zein Gerraostea aipatu behar dela." Garai hura liburuetatik at, hau da, etxe barnean ezagutzen hasi ziren ikasleak, sorpresaz aurrean zituzten aitona-amonengan haurrak aurkitu zituzten, hitzetan berpiztuak: bilobei txikitako kantak abestu zizkieten; aita-ama edo beste senide batzuk gogoratzean hunkituak ikusi zituzten; egindako bihurrikeriekin barrez hasten ziren; eta zenbaitetan ere oroitzak latzekin negarrez, gogoratutakoa kontatzea gogorra ere izan liteke... Lanak entregatzeko orduan, elkarrizketak paperean ekartzeaz gain, ikasleek aitona-amonekin topaketa hori elkarri azaldu zioten, eta guztientzako oso esperientzia aberasgarria izan zela baloratu zuten oro har.

CARMEN LIZASO, vivió su infancia durante los años 30 del siglo pasado.

## “Durante la infancia pasé miedo por causa de la guerra”

**Irantzu Oiarbide. Errenteria.** Carmen Lizaso Elizondo, nacida en 1929 en San Sebastián, segunda de cinco hermanos nos cuenta el recuerdo de su infancia antes, durante y después de la guerra.

- ¿Me puedes contar cómo era la casa en la que vivías cuando eras pequeña?

- Cuando era pequeña vivía en un piso del barrio de Gros de San Sebastián. Allí vivíamos cinco hermanos, el aita Antonio, la ama Dolores y el aitona José Cruz y la amona Cecilia, que eran los padres de mi madre, y por temporadas teníamos una chica.

-¿Qué tareas del hogar solías realizar tú o en qué ayudabas a tus padres?

- Tuvimos dos etapas, en la primera no ayudaba nada porque era muy pequeña, pero cuando vinimos de Francia en lo que se hacía entonces: hacer la cama, cuidar de la pequeña, porque las mujeres ni salían de casa, tenían que estar todo el día haciendo trabajos, así que a veces, la más pequeña de las hermanas y yo salíamos a pasear.

- ¿Cómo era el colegio al que ibas: tus profesores, compañeros, asignaturas...?

- Fui un año a la Escuelas Municipales del Ensanche Oriental de San Sebastián desde los 6 hasta los 7 años donde tenía solo una profesora, luego estalló la guerra, fui a Bilbao, de ahí a Francia como refugiada, aquel tiempo no fuimos a la escuela. A la vuelta de Francia me puse enferma y estuve más de dos años sin ir porque tenía un problema de pulmón y cuando me recuperé, empecé a trabajar como costurera, así que no tengo mucho que contar.

- ¿Tenías tiempo libre? ¿Cómo os divertíais?

- Jugando con las niñas, con las amigas, las vecinas en el monte Urgull. Jugábamos a guardias y ladrones, pasábamos horas, y



*Irantzu Oiarbidek Carmen Lizasori egindako elkarrizketaren zati bat, 2014-15 ikasturtea.*

me lo pasaba muy bien. Trataba de que unos se escondían, y para cuando los encontrabas se te pasaba toda la tarde. También jugábamos en la Brecha, a chingos, a la cuerda, a tabas en la escalera .

**-La Guerra Civil y la posguerra marcaron la infancia de tu generación. ¿A ti cómo te afectó?**

Pasamos terror, miedo. De San Sebastián nos llevaron a Bilbao, allí teníamos que ir a los refugios porque bombardeaban, y me acuerdo cuando mis hermanos pequeños y yo nos teníamos que agarrar a la falda de mi madre y ponernos en una cadena para no perdernos. Nos metían en la bodega de la casa y dentro de la bodega había sacos terreros alrededor, y bajábamos los vecinos de la casa y pasaban también las monjas, que estaban en la clínica de al lado. En el refugio estábamos hasta que tocaba la sirena, normalidad, entonces salíamos a pasear. En Bilbao estuvimos unos nueve meses, hasta que cayó Bilbao. De allí fuimos en un barco mi madre, el aitona y los cinco niños y desembarcamos en La Rochelle, y de allí nos llevaron en tren, a nosotros nos tocó ir a Poitiers.

**-¿Y en Francia qué hicisteis?**

Estar. Allí estábamos en un asilo de ancianos, nos recogieron en el Hotel de Dieu, Hotel de Dios, se llamaba así. Allí estábamos mujeres y niños, mi madre y nosotros cinco. Las salas eran grandes con un montón de gente. Y salíamos a pasear por Poitiers. El aitona estaba en otro lugar, con los pocos hombres que había.

**- ¿Y tu padre?**

- El aita estaba en España en la guerra; luego, como perdieron los nacionalistas, estuvo detenido en la cárcel en Santofña.

**- ¿Y cuando volvisteis qué hicisteis?**

- Volvimos a San Sebastián antes de acabar la guerra. No teníamos casa, nos la habían ocupado y nos repartieron a todos los hermanos entre las hermanas de mi madre, a mí me cogió la tía María. Luego cuando conseguimos casa en la Parte Vieja ya vivimos allí toda la vida.

**- ¿Recuerdas algún episodio divertido de tu infancia?**

- No sé, ¿divertido? Pues como no te cuenta que un día nos llevaron a las mayores, a Asunción y a mí, a Lore Toki para que conociéramos, porque entonces no había televisión, los corderitos al natural. Allí fuimos a ver los corderitos. ¡Ah! A veces íbamos de excursión desde la Parte Vieja hasta los hospitales nuevos que estaban en esqueleto, eso era la excursión de un día.

**-¿Cuál era tu juguete favorito? ¿Quién te lo regaló?**

- ¡Si no tuvimos ni Reyes! Pues algún muñeco, no sé ni quién me lo compró.

**- ¿Cómo solías celebrar la Navidad en tu casa?**

- Normal, como en todas las casas. Con computas y con historias de esas, y estando todos juntos.

**- Por último, ¿cómo resumirías en una frase tu infancia?**

- Mala, por las circunstancias de la guerra, por el exilio, por el miedo que pasábamos durante los bombardeos. Mala, fue una etapa mala de la vida.

13/11/2013

Hurrengo ikasturteetan, proiektu berari heldu genion eta emaitza antzekoa izan zen: topaketa haiei esker, ikasleak Historiara aiton-amonen bizipenaren eskutik hurbildu ziren.

Ikastolako ikas-metodologia aldaketaren ondorioz, elkarrizketa den testu mota 4. mailako *Lenguako* unitateetatik kanpo gelditu zen, beraz proiektua egiteari utzi genion, baina aldi berean Gizarteko (Social Sciences) lan bihurtu zen, "Tell me" proiektuan planteamendu berberarekin azaltzen zela konturatu ginen, "Tell me", hots, "Konta iezadazu". Testuinguru historikoa, politikoa eta gizartekoa aztertzeaz gain, ikasleek garai hartako berriak edo zerikusirik duten egungoak bilatzen dituzte, eta, jakina, aiton-amonari elkarrizketa ere txertatu behar dute, 1936ko gerra nola bizi izan zuten edo nola jaso zuten jakiteko.

Material hori ezagutarazteko formatu ugari aukeratzen eta erabiltzen dituzte ikasleek: web orriak, PowerPointeko aurkezpenak, bideo grabaketak, soinu grabaketak, erreportajeak, narrazioak... Bakoitzak nahi duen modura. Hizkuntzari dagokionez, hemen ere aukera ezberdinak aurki ditzakegu, zenbait kasutan elkarrizketaren jatorrizko hizkuntza ikusi dugu, euskaraz zein gaztelaniaz gehienbat, baina ikasle batzuek lana ingelesera itzultzen dute,

hau baita Gizarte Zientzian erabilitako hizkuntz instrumentala.



*Ikasleak proiektua partekatzen gelan. (Orereta Ikastola)*

Klase orduetan ahozko aurkezpena egiten dute, gelakideei proiektuaren emaitzak ezagutarazteko; jarraian galderentzako, hausnarketentzako edota iritziak emateko tarteak zabaltzen da.



*Eki Vicentek aurkeztutako bideoaren irudia, elkarrizketatua bere amona da, María Ángeles Beltrán. (Orereta Ikastola)*



*Ikasleak gelan lanen aurkezpenean (Orereta Ikastola)*



# Aizpurua Negredo Family's Experience During The Spanish Civil War

Ander Aizpurua

*Web orria sortzea da ikasle batzuen hautaketa lanaren aurkezpenerako, ondoko irudian ikus daitekeenez, sortzailea Ander Aizpurua da.*

Beste ikasle batzuek, PowerPoint programa erabiliz, proiektua zabaldu dute. Kasu honetan Ekain Ortegaren lana dugu, hurrengo irudietan bere amona, Miren Etxeberriari buruzko datuak ingelesez ematen dizkigu, baina berarekin izandako elkarrizketa jatorrizko hizkuntzan gorde du. Adibide moduan hiru diapositiba:

Xabier Hernandez ikasleak bere lanean Isabel Alfonsoren ekarpena jaso du, ingelesera itzulia kasu honetan.



## Who is Miren Etxeberria?

Miren Etxeberria is my grandmother. She was born on the 9<sup>th</sup> of January of 1932 in the street Santa Clara, Erreterria, with her five siblings. When the Spanish Civil War happened, my grandmother was very small, and only has loose memories of that time; what she had to live really was the postwar period, which was very hard. People didn't have enough money, people were starving... Luckily she did not pass what many people had to pass, because, although her parents were Nationalists, the fascists did not appear almost by Erreterria.



*Ekain Ortega: diapositiba 1*

## ¿Os obligaron a moveros a otro sitio?

Como todo el mundo se marchaba a sus pueblos, a mi tía le entró la neura de que nosotros también teníamos que irnos a algún sitio. Pues resulta que mi tío tenía una amiga que tenía los sobrinos en Ondarroa, así que allí fuimos. Además tenían una casa muy cerca de lo que es la costa, un chalet muy majo. La cosa es que nos fuimos allí por mejor, pero no fue la mejor opción. Resulta que rompieron el puente de entrada a Ondarroa; creo que del monte echaron una bomba; y una de las piedras del puente que rompieron saltó y entró por nuestro tejado haciendo un agujero, pero por suerte no hubo heridos. Luego, de ahí nos bajaron abajo, que estuvimos en una alameda que ahora el puente no deja ver, en la panadería, porque eran amigos de la familia, y ahí estuvimos. Solía ponerse en la bocana el barco Cervera y otro, o sea los nacionales, a disparar, y nosotros todos a la panadería corriendo, "¡que viene el barco!", lo veías por el horizonte. Y al final volvimos en autobús a casa, pero se quedaron mis padres, y la tía y los demás de vuelta: tres tías, la abuela y cuatro críos.

*Ekain Ortega: diapositiva 2*

## Interview

Estábamos en el bajo, en un almacén y ponían los fardos de paja en la ventana por si algún día pasaba algo. Un día cayó una bomba en las huertas de detrás de casa, y mi tía, del susto, nos cogió a todos los niños y nos llevó corriendo por la calle del Medio hasta que nos encontramos con mi padre, y volvimos a casa. ¡Mira que caer una bomba en la huerta y nosotros salir por el otro lado a la calle! La bomba, al ser pequeña estalló, pero no hubo heridos, menos un árbol que había en la misma huerta al que le quitó unas ramas, y lo llamábamos "el herido de la guerra". A día de hoy esa bomba seguirá en la huerta. ¡Qué cosas pasaban en esa época! A día de hoy con una bomba así, se podría armar una buena.

*Ekain Ortega: diapositiva 3*

### THE HISTORY OF **BASILIA ORBELZU** (MY GREAT-GRANDMOTHER)



(My great-grandmother with her husband)

"Our grandfather died during the civil war, because of an illness and our grandmother (Basilia Orbelzu) was widowed with 4 children, one of them newborn. Our dad (Luciano Alfonso) with 2-3 year old. They were from the republican side and they went to a refugee camp in Durango. The brothers of our grandmother fought for the "Euzko Gudarostea", they were two, one was killed and the other was put in jail. They went from the refugee camp to Bilbo, then they embarked to France fleeing from the war and then from France they went to Catalonia still was republican. There they spent a large period of time and later after the war return to Orereta, there they passed the postwar"

*Xabier Hernandez: diapositiva 1*

Isabel Alfonso and Federico Alfonso

Beste ikasle batzuek, teknologia albora utzita, euskarrirako papera hautatzen dute, beraien artean Uxue Arruabarrena dugu, eta lanaren orrietan aiton-amonei egindako elkarrizketa eta argazkiak txertatu ditu. Elkarrizketatuak Isabel Barrios eta Jose Gorostidi dira.

### **GARAI HONETAKO ANEKDOTA BITXIRIK DUZU?**

**AMONA ISABEL:** *Nire izeba, EAJ-ko Irujoren lan taldean zegoen, ondorioz eskapo egin behar izan zuen Frantziara. Han erreferentzia puntu bat izan zen Euskal iheslariei laguntzeko. Ondoren, Bigarren Munduko Gerran, Erresistentziarentzat egin zuen lan. Gainera, gerrako espia bat izan zen. Gerra ostean kondekorazioak jaso zituen. 1981ean nik nere ama lagundu nuen bera (nire amaren ahizpa) bisitatzeraz Parisera, biok bakarrik gaztelania genekigun. Izan ere, gerran zehar ez zuten elkar ikusi ezta hitz egin, baina nere amak, hil aurretik, bere ahizparekin hitz egin nahi zuen, elkarrekin egon... Parisera, bere etxera iritsi ginean, atea jo genuen. Berak atea ireki zigun eta nor ginen ikusterakoan hitzik esan gabe atea itxi zigun. Nire izeba, Antonia Echarte Ollo, urte horretan il zen. Gaur egun konturatu gara emakume garrantzitsu bat izan zela. Errepublika Frantsesak "reconocimiento" bat eman zion. Gainera, "Tierra de estrellas"\* liburuko atal bat ere bada. Gaur egun beregandik dauzkagun gauza bakarrak, bere oroitzapena liburuko atala eta bera exilioan zegoeneko karta batzuk dira.*



*\*Liburu bat gerran garrantzitsuak izan ziren emakume ahaztuen historiak kontatzen duena.*

Antonia Echarte Ollo

*Nire amaren anaia batzuk Nazionalen alde borrokatzeraz behartu zituzten. Eta beste batzuk ez, beraz beraien ideiak babesteko gerrara joan ziren. Ondorioz, gerran anaiak elkarren aurka borrokatzen zuten, elkar akatzeraz behartuak ziren*

**AITONA JOSÉ:** *Altzako "Justuenea" baserrian bizi ziren nire aita eta bere anaiak. Gerra garaian nire aita Ametzagainara igotzen ziren. Preso hartu zuten eta Ondarretako kartzelean sartu zuten. Luzuriaga enpresaria abalista moduan aurkeztu zuen bere burua aske geratzeko. Gure etxeko senide guztiak bertan egiten zuten lan. Ni 44an jaio nintzen, nere etxean beti euskera hitz egitera bultzatu gaituzte, fraileak eskolan zigortzen baziguten ere.*

AMONA: Isabel Barrios

AITONA: Jose Gorostidi

Badaude formatu batzuk jaso ezin ditugunak artikulu honetan, transkripzioaren bidez ez baldin bada, behintzat: bideo zein audio grabaketaz hitz egiten ari gara, hain zuzen ere.

Gertuko testigantzak biltzeaz gain, ikasleek dokumentazio ezberdinak ekarri dituzte klasera beren lanak azaltzeko: argazkiak, liburuak, eskutitzak, sententziak, errazionamendu-kartillak... Eta hau guztia jakin-minez eta arretaz aztertu dute.

Historiaren transmisioak, lehen pertsonan kontatua batez ere, Historia gertutik ezagutzera garamatza, horregatik, ikasleek gertuko testigantzak ezagutzea oso jarduera aberasgarria dela pentsatzen dugu. Bestalde, testigantzak eta hausnarketa eskola eremura

ez mugatzea izango litzateke helbururik interesgarriena, ekarpen horiek herriaren memoria gordetzen baitute. Hala ere, hau ez da hain erraza kasu askotan, airean gerraren aztarnak dabilzan bitartean, oroitez hitz egitea zaila izan liteke, ulergarria da. Dena den, familiaren historiak herriaren historiak dira, norberarenak eta guztionak direla ez genuke ahaztu beharko, eta lekukoen hitzei esker ere, iraganera irits gaitzkeela, baita gure oraina ulertzera ere.

Bukatzeko, amaren eskaera ekarri nahi dut hona, 86 urteko gerrako haur baten hitzak dira, eta honelaxe zioen: Konta ezazu, idatz iezaiezu, jakin dezaten...

Jakin dezaten.